07
Udal Aldizkaria
ekaina 2006

# BERGARA





www.bergara.net



agorrosin





## Iradokizun orria barnean

Udalak zuen iradokizunak jasotzeko bide desberdinak eskaintzen dizkizue; aldizkari honetan aurkituko duzuen iradokizun orria bete eta Udaltzaingoaren ondoan dagoen kutxatilan sartu, www.bergara.net web orrian...

## *Incluye hoja de sugerencias*

*El Consistorio ofrece dos posibilidades para hacer llegar vuestras sugerencias. La primera posibilidad es rellenar la hoja adjunta y depositarla en la urna que se encuentra junto a la Policía Municipal, y la segunda, mediante la web www.bergara.net*

07

# AGORROSINGO KIROLDEGI BERRIA

## BI BATEAN

### ERAIKINAREN AURKEZPENA

Arkitektoak eraikinaren egitasmoa aurkeztu zuenean BI BATEAN izena ipini zion. Arrazoia, eraikin berean ikuspegi askok elkar uztartu egiten direlako.

Kirol ikuspegiari dagokionean, errendimenduko ikuspegia eta osasun-aisia ikuspegia bateratzen dira igeriontzi handian. Modu horretan edozein erabiltzaileren beharrak asebetetzen dira: Lehiaketetako igerilariena, mugikortasun zailtasunak dituztenen erabiltzaileena, irakaskuntzarako beharrena, igeriketan hasiberriena, jaioberriena, gurasoenak, eta abar.

Bi baten ideiarekin jarraiki, kirolak eta aisiak bat egiten dute behe eta goi solairuek bat egiten duten bezala.

### ERAIKINA GOITIK BEHERA



■BEHE SOLAIRUA

EREMU LEHORRA
-Behin behineko fitness aretoa. (180 m²).
-Erabilera anitzeko bi areto (2 x 150m²).
-Eremu honetarako aldagelak.
-Begiraleentzako aldagelak.
-Biltegiak.

Eremu lehorraren ezaugarria moldagarritasuna da. Gimnasioetako eremuak diseinatu direnean erabilera aniztasun eta etengabeko demanda berriak kontuan hartu dira.

EREMU BUSTIA
-25 m luze eta 21 m zabal den igeriontzia.
-19 m luze eta 6 m zabal den igeriontzia.
-Biltegiak.
-Taldeentzako aldagelak.
-Bakarkako erabiltzaileentzako aldagelak.
-Ezindu fisikoentzako aldagelak.
-Gurasoak direnentzako aldagelak.
-Sorosle eta senda-gela.

Bi igeriontzi hauek azken belaunaldikoak dira. Altzairu herdoilezinez eta PVC bereziz egindakoak. Erabiltzailearen erosotasuna bultzatzeaz gain, mantentze ikuspuntutik dirua aurrezteko aukerak gehiago dira, mantentze lanak urriago eta merkeagoak baitira.

Bi baten ideiarekin jarraituz, igeriontzi handiak, kirolaren ikuspegi guztiak jaso eta errespetatzen ditu. Bai errendimendu kirolaren ikuspegia bai osasun-aisia kirolarena ere.

■GOI SOLAIRUA

Kirol ekipamenduekin batera kultur ekipamendua eskainiko da.

LUDOTEKA: zerbitzu oso eta integratua bilatuz, San Martin plazako Ludoteka Agorrosinera jaitsiko da.

EKITALDI ARETOA : Ikastaroak, bakarrizketak, mintegiak, hitzaldiak,... hartuko dituen aretoa dago. Ikus-entzunezko baliabideekin hornituta tamaina txiki eta ertaineko kultur formatuak bereganatu ahal izateko.

KIROL ELKARTEENTZAKO BULEGOAK: Bergaran federatuak 800 kirolari eta 17 kirol elkarte daude. Guztientzako esparrua antolatu da beren kudeaketarako gunea eskaini asmoz. Baliabide ofimatikoak eta batzar gela eskainiko zaie.

TABERNA-JATETXEA: Ia 200 m²ko taberna-jatetxea. Udaran terraza handiarekin funtzionatu dezake. Hala ere, estalpean ere itzeleko baliabideak bereganatzen ditu. Herriko topaleku bihurtu nahi duen eremua izango da.

### EPEAK

■2006ko IRAILA: Agorrosingo eremuen gehiena zabalduko da.
■2007ko UDABERRIA: Hiri bainuetxea zabalduko da: ur txorrota terapeutikoak, ur ontzi bereziak, jakuzzia, ur oheak, sauna, terma eta lurrun gela.
■2007ko EKAINA: Kanpoko eremu berdea: solariuma, kanpoko komunak, eta abar.

agorrosin





# IKUSPEGI ENERGETIKOA

Kiroldegi handi batek energia gastu handiak ditu, hori dela-eta, eta energi baliabideetan aurrezteko asmoz Agorrosinek hainbat ezaugarri betetzen ditu.

Igeriontzien ur m3 guztiak berotzeko erabiliko den energia eguzkiarena izango da. Horretarako, terraza handi batean xafla termikoak ezarri dira. Ura berotzeko 4000 l.ko hiru ur biltegiekin batera eguzki indarrak beteriko laugarren biltegi bat ipini da.

Bestalde, igeriontziaren eremua Hegoaldera norabidetua dago eta bertan kokatuta dagoen leiho handiei esker igeritokiko eguratsa era natural bidez berotuko da gasa eta argindarra aurreztuz. Horrekin batera, igerilekuaren sabaia egurrezko bobeda handi bat da, zeinak beroari hobeto eusten dion.

Bestetik, argindarrean aurrezteko asmoz, kiroldegiak energia Tentsio Altuan erosi egiten du eta eraikinean bertan transformatu egiten du.

Honekin guztiarekin eta guztiari lotuta azken belaunaldiko ordenadore informatikoa bat dago. Ordenadore honek eraikin guztia gune bakarretik egiteko aukera ematen du, gainera kontrol hori internet bidez, munduko edozein lekutik egin daiteke. Ordenadore honek instalazio guztien automatizazioari esker, kontsumo historialak egiteko aukera ematen du, beharrezkoak izan daitezkeen energi aurrezpen protokoloak bideratuz.



## 2006ko TASAK (irailetik abendura)

■Kirol txartela 2006-09-16a baino lehenago dutenentzat.
- 18 urtetik beherakoak 24,50 €
- 18 urtetik gorakoak 41,50 €
- Langabetuak,ikasleak<LGS 24,50 €
- Jubilatu (65 urtetik gorakoak), elbarritu (>65%) <LGS 24,50 €
- Jubilatu (65 urtetik gorakoak), elbarritu (>65%) >LGS 41,50 €
- Familiarra (20 urtetik beherako seme-alabekin) 64,20 €

■Kirol txartela 2006-09-16tik edo ondoren dutenentzat.
- 18 urtetik beherakoak 28,50 €
- 18 urtetik gorakoak 48,40 €
- Langabetuak, ikasleak <LGS 28,50 €
- Jubilatu (65 urtetik gorakoak), elbarritu (>65%) <LGS 28,50 €
- Jubilatu (65 urtetik gorakoak), elbarritu (>65%) >LGS 48,40 €
- Familiarra (20 urtetik beherako seme-alabekin) 75,00 €

2007tik aurrera tasak beste batzuk izango dira, esplotazioaren autofinantziazioa lortu nahi baita.





# ERABILTZAILE MOTA GUZTIEI EGOKITUA

Ezaugarri nagusia erosotasuna da. Eraikinera sartu, aldagelatik pasa eta nahi duzun eremura sartzea inon baino errazagoa da, trantsizio ibilbideak ohiko kiroldegietako baino motzagoa delako.

**Eskolak eta Talde handiak**. Ohiko aldagelekin batera taldeka etorri ohi diren kolektiboentzako eremuak aurreikusi dira. Honela, bakarka doan erabiltzaileak ez du talde handien anabasa eta iskanbilak jasan beharko.

**Gutxitu fisikoak.** Irisgarritasun araudiarekin betetzeaz gain, eraikinak hainbat abantaila ditu: Aldagela berezituak, kirol esparru guztiak 0 metrotan kokatuta daude, beraz ez da inora igo ezta jaitsi behar. Igeriontzietara sarbideak zabalak eta erosoak dira. Mugikortasun zailtasunak dituen edozeinentzako (adinduak, lesioren bat pairatzen dutenak, urritasun fisiko-psikiko-sensorialak dituztenak) baliabide ezberdinak ezarri dira: igeri ontziko lur berezia, igeriontzi alboko lur zola berezia, aldagela berezituak, eta abar.

Seme-alabak dituzten **gurasoek** ere beraientzako kabina propioak izango dituzte. Kabinek jaioberrientzako ohol berezia izango dute.

Aldagela kopuru andanak Agorrosin kanpoan ekintzak egiteko aukera emango du: topaketak, lasterketak, eta abar.

# [ESAN BEHARREKOAK]

Herritar maitea:

Udal aldizkariaren ale berri hau argitaratuko dela eta, gogoeta txikia egitera behartuta ikusten naiz Udalean egiten ari diren gestioen gainean. Hona hemen, beraz, gogoeta horiek:

Udal Planeamendua berraztertzeko tramitea funtsezkoa da Udalerriko biztanleen garapenerako eta ongizaterako. Logikoa da hori; izan ere planeamendua da eraikitze- eta urbanizazio- lanak, herriko bilbea osatuko dutenak, burutzeko oinarria. Horretarako, une honetan Aurrerapenaren dokumenturako aurkeztu diren ideiak aztertzen ari dira dagokion batzorde informatzailean; beraz, laster Udalbatzak Bergarako Planeamenduko Araua Subsidiarioak berraztertzeko irizpideak, helburuak eta irtenbideak ezarriko ditu, eta horiek oinarri hartuta dokumentua idatzi zuen arkitektoak dokumentu berria idatzi eta aurkeztuko du, ezarritako epean, hasierako onarpena eman dakion. Tramitea, berez, luzea da, baina are luzeago egin da Lurzoruaren Lege berria dela eta.

Azken hiruhilekoan Agorrosingo kirol ekipamendu berriaren (igerilekuaren) lanak ia bukatu egin dira, eta datorren irailean zabalduko dira jendearentzat. Aurretik instalazioen ateak ireki egingo dira, interesaturik daudenek instalazioak ikus ahal ditzaten. Ea lehen mailako instalazio berri honek, Udalak diru aldetik sakrifizio handia eginda lortu denak, Udalerriko biztanleen premiei erantzun eta haiek eskatzen zuten zerbitzua ematen duen. Azpimarratu behar da irailaren hasieran SPA edo bainuetxea egiten hasiko dela, eta horrekin berritu den zerbitzu publikoa osatu eta hobetuko da.

Datozen hilabeteetan instalazioak hobetuta izango dituen beste kirol ekipamendu bat udal pilotalekua da. Teilatua eta aldagelak berrituko dira eta eserlekuak aldatu.

Auditoriuma (erabilera askotarako izango dena, zinema, antzerkia, musika,...) egiteko eta Martinez Irala eskolaren zati bat birgaitzeko proiektuei ere ekin zaie jada. Iñaki Aspiazu eta Xabier Yeregi profesionalki ibilbide luzea egina duten arkitektoek, irail bukaerarako, Errege Seminarioko eliza birgaitu eta handitzeko eta auditorium bihurtzeko lanen proiektu teknikoa idatziko dute. Horretarako Javier Sabadie arte eszenikoetako profesionalaren aholkularitza izango dute. Bestalde, Udalak etxeko txikienen arretarako zerbitzu publikoa edo haurtzaindegia (0-2 urte) martxan jarri nahi izan du, eta, besteak beste, horri eman dio lehentasuna inbertsioak egiterakoan. Horretarako, Martinez Irala eskola egokitu beharko du eta datorren urrian martxan egongo dela uste dugu.

Eguneroko kudeaketan esku artean dauzkagun beste lan adierazgarri batzuk honako hauek dira: Artekalea, Masterreka, Goenkalea, Laudantz kantoia eta Juan Irazabal berriro urbanizatzeko lanak; laster bukatuta izango dugun gune historikoaren argiztapena; Domingo Iralaren urbanizazioari ekiteko lursail pribatuak eskuratzeko kudeaketen emaitza (aisialdirako gune publiko garrantzitsu izan dadin). Era berean, Torrekua kaleko 41-43 zenbakien eta Matxiategiko 3tik 7rako tartearen aurrean oztopo arkitektonikoak kentzeko egindako lanen ejekuzioak adierazten du Udalbatza honek duen konpromisoa bere garaian onartu zuen Irisgarritasun Plana pausoz pauso betetzeko.

Udalerri osoaren premiak asebetetzeko dugun arduraren erakusgarri dira auzoetan egindako hobekuntzak, Osintxuko zubia birgaitzea edota Zubiaurre eta San Lorentzo kaleetan etxebizitza berriak —euren gune urbanizatuekin— eraikitzeko lanak hastea.

San Juan auzoko goialdea funtzionamenduan jartzeak eta Larramendiko garapen industrialerako Arau Subsidiarioak aldatzeko hasierako onarpenak garbi erakusten dute Bergarako Udalak industria-garapenarekin —lanpostuak sortzeko eta gure eskualdea eta Udalerria aberasteko— duen konpromiso tinko eta erabakigarria.

Komenioko kontenedoreak lurperatzeko obrek, San Martzial egokitzeko laster adjudikatuko diren obrek eta energiaren erabilera arrazionala eta energia berriztagarrien aprobetxamendua sustatzeko zenbait ekintza garatzeko Energia Sailarekin (EVE) sinatutako hitzarmenak gauzatzeak nabarmen lagatzen dute Udalaren kudeaketan gero eta garrantzia eta protagonismo handiagoa dutela ingurumenaren aldeko ikuspuntuak.

Udalerrian sakabanatuta dauden etxeetarako bide publikoak garbitzeak eta sastrakak kentzeak ere begibistan jartzen dute Bergarako txokoak segurtasun, osasungarritasun eta apaindura aldetik baldintza egokietan izateko egin den ahalegina.

Ikusten duzun moduan, arlo asko ditugu sustatzeko; horiek gauzatzeak, jakin badakigu, hobekuntza nabarmena ekarriko duela bergarar guztion bizi-baldintzei begira.

Beste barik, opor onak pasa ditzazula opatu eta agur bero bat helarazten dizut.

ZUEN ALKATEA



■ Victoriano Gallastegi

■ El trámite de revisión del planeamiento municipal es pieza clave en el desarrollo y bienestar de l@s vecin@s de un municipio. Se están tratando en la comisión informativa correspondiente las sugerencias presentadas al documento de Avance, de tal suerte que en breve plazo se van a establecer por el Pleno los criterios, objetivos y soluciones de la revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Bergara, que servirán de base para que el arquitecto redactor proceda a la redacción y presentación en los plazos convenidos del documento de aprobación inicial de la mentada revisión. Este trámite de por si largo, se ha visto condicionado y dilatado por la nueva Ley del Suelo.

■ Durante este último trimestre se han colmatado, prácticamente, las obras del nuevo equipamiento deportivo de Agorrosin (piscinas).

■ Otro equipamiento deportivo que verá mejoradas sus instalaciones en los próximos meses será el frontón municipal en el que se renovará la cubierta y los vestuarios y se proveerá de nuevas butacas.

■ El proyecto del auditorium que recogerá en su seno usos polivalentes, como cine, teatro, música, etc y la rehabilitación de parte del edificio de la escuela Martinez Irala han iniciado su andadura, igualmente.

■ Otros exponentes de la gestión cotidiana en la que estamos inmersos son: la reurbanización de las calles Artekalea, Masterreka, Goenkalea, cantón Laudantz y paseo Juan Irazabal, obras de iluminación del casco histórico, supresión de barreras arquitectónicas realizadas en Torrekua 41-43 y en Matxiategi 3 a 7, la mejora de los barrios, soterramiento de direrentes contenedores...

# SAN MARTZIAL JAIAK

**EKAINAK 30, ostirala, San Martzial eguna**

07:00 KANPAIEN JOTZEA Santa Marinan.

07:30 Santa Marinatik SAN MARTZIALERA IGOERA, Letania errezatuz. Ondoren MEZA San Martzialen. Bukaeran TXOKOLATEA San Joxepe elkarteak prestatua.

20:00 Bergarako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua San Pedro parrokian.

Egitaraua

| | | |
|---|---|---|
| Adagio in sol minore | | T.Albinoni |
| Sinfonía n.41 (Júpiter) | 1.tempo | W.A.Mozart (jaiotzaren 250.urteurrenean) |
| La vida es bella | | N.Piovani |
| The mask of zorro | soinu banda | J.Horner |
| Hijo de la luna | | Cano |

Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque

**UZTAILAK 1, larunbata**

19:00 BONBA JAPONIARRAK San Martin plazan.

ONDOREN Buruhandi eta erraldoien KALEJIRA, Kobok Bergarako gaiteroek lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta kalea, San Pedro, Artekale, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Irizar pasealekua, Barrenkale eta San Martin Agirre plaza.

**UZTAILAK 2, igandea, San Martzialgo erromeria**

09:30 ALBORADA Lizarrako gaiteroekin, Zumarragako trikitilariekin, Los Incansables txarangarekin eta Bergarako Udal Txistulari Bandarekin.

10:00 San Martzialera GURDI IGOERA.

11:00 San Martzialen MEZA NAGUSIA.

12:00 Xamatz taldearen DANTZA EMANALDIA. Ondoren, ohiko aurreskua.

Bazkal aurretik Juan Mari Narbaiza eta Jesus Alberdi “Egileor” bertsolarien jarduna. Abesti herrikoiek Kantinan abestuko dituzte, hala nahi duten guztiek.

16:00 UMEENTZAKO JOLASAK.

18:00 HERRI JOLASAK
Sokatiran aritzeko 8 laguneko taldeak egingo dira. Taldekideek 16 urte izango dute gutxienez. Nola gizonezkoetan hala emakumezkoetan, 8 talde arituko dira lehian gehienera. Izen-ematea egunean bertan egingo da, 17:00etan.

Txinga jokoan aritzeko txingak ere izango dira. Gizonentzako txinga bakoitzak 50 kiloko pisua izango du. Emakumeentzakoek, berriz, 25 kiloko pisua bakoitzak.

Ordu berean Txinparta taldearen eskutik ERROMERIA.

21:00 JAITSIERAKO TXUPINAZOA eta Udal Musika Bandako txistulariek, Lizarrako dultzaineroek, Zumarragako trikitilariek eta Incansables txarangak alaitutako JAITSIERA. Jaitsierari txarangak emango dio bukaera, San Martin plazan.

## AVISOS:

■El día 2 de julio habrá servicio del AUTOBUS URBANO a San Marcial. El ACCESO DE VEHÍCULOS SE LIMITARÁ a los que suministren género a los establecimientos instalados en la campa, y, una vez realizado el suministro, tendrán que salir de la misma.
■SE CORTARÁ EL TRÁFICO de vehículos a San Marcial de 21:00 a 22:00.
■SE RUEGA NO ECHAR AGUA a la bajada de San Marcial, ya que se estropean los instrumentos de música.
■Agradecemos a MANSO HERMANOS, MINER ARDOAK y VINOS ATXEGA (“Vinos López Ojeda”) la colaboración con la Comisión de Festejos del Ayuntamiento de Bergara, por la aportación gratuita de la barrica de vino que rotativamente hacen cada año para el día de San Marcial. El vino de este año ha sido donado por VINOS ATXEGA.
■La Comisión de Festejos no se hará responsable de los daños que puedan producirse durante la celebración de estas fiestas.

## UDAKO GAUAK

**UZTAILA**

1ean 19:00 Bonba japoniarrak San Martin plazan eta ondoren buruhandi eta erraldoien kalejira
2an San Martzialgo erromeria
7an 22:30 Espoloian Rafa Ruedaren kontzertua
8an 20:00 Bergarako Orfeoiaren kontzertua Mariaren Lagundian
14an 22:30 Espoloian Malatu taldearekin jazz kontzertua
16an 11:00 Udal Musika Bandaren kalejira.
11:30 Santa Marina eguneko meza nagusia
12:30 Espoloian Udal Musika Bandaren kontzertua
18an 20:00 Aritzeta abesbatzaren kontzertua Santa Marina parrokian
21ean 22:30 Espoloian Four Friends taldearekin jazz kontzertua
28an 22:30 Espoloian Ortophonk taldearekin funky musika

**ABUZTUA**

AIRE LIBREKO ZINEA / Cine al aire libre San Martin plazan.
Abuztuaren 3an, 22:00 Charlie y la fábrica de chocolate (gazteleraz).
Abuztuaren 10ean, 22:00 Obaba (euskaraz).
Abuztuaren 17an, 22:00 Bajo cero (gazteleraz).
Abuztuaren 24an, 22:00 Koruko mutilak (euskaraz).

**IRAILA**

15, 16San Martin Agirre jaiak Bergaran.

## Udal pilotalekuaren eserlekuak, teilatua eta aldagelak berrituko dituzte

Herriko frontoian obrak egingo dituzte 185.822,25 euroko aurrekontuarekin. Hauetatik 43.930,93 euro dira aldagelak konpontzeko, 57.295,32 euro teilaturako eta 84.596 eserleku zaharrak kendu eta berriak ipintzeko. Berrikuntza bakoitza enpresa ezberdin batek egingo du, hau da, hiru enpresa desberdin ibiliko dira berrizte lanetan.

Aurrekontuaren zatirik handiena eserlekuak aldatzeko izango da. Guztira, 688 eserleku berri jarriko dituzte. Egurrezkoak eta automatikoki batzen direnak izango dira. Teilatua konpontzeaz gain, bide batez, bertan dauden itoginak ere konponduko dituzte. Aldageletan, pilotariek partidua hasi baino lehen eskuak berotzeko balio izango duen frontoi txikia egiteko asmoa dago.



## Komenio, primera calle en disponer de contenedores soterrados

La calle Komenio de Bergara será la primera vía pública que dispondrá de contenedores subterráneos para recoger la basura y el material a reciclar. Los depósitos subterráneos se colocarán más o menos en el mismo lugar en el que se encuentran los contenedores actuales.

Además de soterrar los contenedores en la calle Komenio, el Ayuntamiento también ha visto la necesidad en otros sitios. Por ejemplo, en Ibargarari, en los pisos nuevos que se están construyendo ahora, también se colocarán contenedores subterráneos. En la calle Domingo Irala, cuando se lleve a cabo la reurbanización de la vía, también se colocarán contenedores soterrados.



La obra civil la llevará a cabo el Ayuntamiento y los contenedores los pondrá la Mancomunidad del Alto Deba. El presupuesto de ejecución de estos trabajos se ha fijado en 30.807,44 euros.

## El Ayuntamiento prepara el monte San Marcial para su gran fiesta

La Brigada de Monte del Ayuntamiento ha comenzado con los preparativos del monte San Marcial para celebrar el gran día de fiesta que tendrá lugar como todos los años el primer domingo de julio.

El día 2 de julio habrá servicio del AUTOBUS URBANO a San Marcial y el acceso de vehículos se limitará a los que suministren género a los establecimientos instalados en la campa.

## Se va a vallar la acera del cruce de la Enseñanza

El Ayuntamiento va a colocar vallas en las aceras del cruce de la escuela Mariaren Lagundia para mayor seguridad de los peatones.

Dado el intenso tráfico de vehículos y peatones que soporta este cruce, se va a proceder a levantar el paso de cebra y se van a vallar las aceras, obligando así a los peatones a cruzar la calle por el paso de peatones alzado para mayor seguridad vial.





## En septiembre estará concluido el proyecto del futuro auditorio y sala multifuncional en el Seminario

Se ha adjudicado la redacción del proyecto del futuro auditorio municipal que se construirá en la iglesia del Real Seminario. El equipo redactor de la obra estará encabezado por los arquitectos Iñaki Aspiazu y Xabier Yeregi, que contarán con un presupuesto de 222.469 euros para el desarrollo del proyecto arquitectónico. Los trabajos de asesoramiento escénico, con una partida de 26.000 euros, han recaído en la empresa Ereite S.L. La dirección de obra costará 95.344 euros.

El proyecto estará completado para el mes de septiembre y se prevé que para finales de año esté en marcha la primera fase de estos trabajos.

El proyecto recogerá la transformación de las naves de la iglesia del Real Seminario en un auditorio funcional y multiusos. Para ello, habrá que trasladar el retablo a un lateral del templo y construir una edificación que se adhiera a lo que antes eran dependencias de uso de la ikastola Aranzadi.

## Etxebizitza publikoak San Antonion

San Antonion, babestutako 22 etxebizitza ari dira egiten. Lanak hasita daude eta 2007. urte bukaerarako amaitu nahi dira.




22 etxebizitzetatik batzuk etxea berreskuratzeko eskubidea duten herritarrendako izango dira eta gainerakoak alokatu egingo dira. Zozketa, lanak bukatzear daudela egingo da; datorren urtean, beraz. Hiru etxebizitzak lau logela izango dute, bederatzik hiru, zortzik bi eta bik logela bakarra. Etxebizitza bat gutxituendako egokitutakoa izango da. Guztiek trastelekua izango dute. Etxebizitzekin batera 14 aparkaleku ere egingo dira. Ordaindu beharreko bataz besteko alokairua 180 eurokoa izango da.

Algodonerako lurretan 40 etxebizitza babestu egingo dituzte. Bestalde, Candy lantegiaren ondoan beste 80 egingo dituzte babes ofizialekoak. 128 etxebizitza guztira.

San Antonion baita ere, Etorlur enpresa publikoak tasatutako 38 etxebizitza eta 25 garaje egingo ditu uda ostean.

Lau solairuko eraikina egingo dute. Zortzi alokairuan emango dituzte eta gainerakoak



saldu egingo dira. Etxebizitza bat gutxituendako egokitutakoa izango da. 75 urte barru, ordea, etxebizitza lurraren jabearendako izango da. Bat, bi eta hiru logelako etxebizitzak izango dira. Hiru logelako zortzi duplex egingo dira.

## Obra ezberdinak

■ Goenkaletik Madalen Enparantzarainoko zatia urbanizatzeko lanen exekuzioa Construcciones Ozio S.L. enpresari 216.180,33 €tan esleitu zaio.

■ Ibargarai 41-42 zenbakietan oztopo arkitektonikoak kendu eta arrapala eraiki dira 13.622,74 €ko aurrekontuarekin. Matxiategin ere, oztopo arkitektonikoak ezabatu dira 29.069,60 €ko aurrekontuarekin. Lanok, Construcciones Arreta enpresak burutu ditu.

## San Martzial festarako mahai eta aulkiak alokairuan hartzeko epea zabalik ekainaren 26rarte

- Mahai bakoitzaren alokairuak 20 € balio du eta eskatzaile bakoitzeko 100 euroko fidantza jarri beharko da. Izen-ematea: ekainaren 26ra arte, kultura etxean, 17:00etatik 20:00etara.
- Fidantza jasotzea: uztailaren 3tik 7ra (biak barne), kultura etxean, 17:00etatik 20:00etara.
- Mahaiak eta aulkiak hartzea: Uztailaren 1, larunbata, 17:00etatik 20:00etara, San Martzialgo kantina ondoan.
- Mahaiak eta aulkiak entregatzea: San Martzialgo erromeriaren ondoren kantina ondoan 21:30ak arte. Materiala entregatzen duenari Udaleko seilua jarriko zaio. Materialaren eskatzaile bakoitzak kultura etxean eskaera egiterakoan eman zitzaion orria eraman beharko du materiala entregatzerakoan, han jarriko diotelako seilua. Alokatutako materiala egoera berean entregatzen ez duenak ez du seilurik jasoko, eta ondorioz, fidantza galdu egingo du.


01


02



03


04





05


# (IKUSTEKOAK)




06




07



08






09



10

**01**
Komenio kalea izango da herriko lehena lurazpiko edukiontziak izaten.
La calle Komenio será la primera en disponer de contenedores de basura y reciclaje soterrados.

**02**
2005eko San Martzial festaren ondorioz mendia zaborrez gainezka gelditu zen. Aurten festazale txukunagoak izatea espero da.
El Ayuntamiento espera que este año no se repitan las consecuencias de la fiesta de San Marcial del pasado año.

**03**
Kirolez blai udako kirol kanpaina abian jarri dute Udaleko Kirol Zerbitzuek.
Los servicios deportivos municipales han iniciado la campaña Kirolez blai para potenciar el deporte en verano.

**04**
Haurreskolak urrian zabalduko ditu ateak gelak txukundu eta gero.
Haurreskola abrirá sus puertas en octubre tras acondicionar las aulas.

**05**
Udal frontoiko eserlekuak, teilatua eta aldagelak berriztuko dira udan.
Durante el verano se renovarán las gradas, el tejado y los vestuarios del frontón municipal.

**06**
Udal igerileku berriko errotuluak brailez eta elebietan egongo dira.
Los rótulos informativos de las nuevas piscinas municipales estarán en braile, euskara y castellano.

**07**
Kiroldegi berriaren irudi korporatiboa.
Imagen corporativa del nuevo polideportivo.

**08**
Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen Mostra izan berri da.
Del 15 al 18 de junio hemos podido disfrutar con marionetas para mayores.

**09**
Irailaren 26tik 29ra Agorrosinen film laburren emanaldia egingo da. 300 eta 250 €ko sariak egongo dira. Animatu!
Del 26 al 29 de septiembre tendrá lugar un concurso de cortos. Habrá premios de 300 y 250 euros. Anímate a participar!

**10**
Udalak 300.000 euro inbertituko ditu jolas parkeak berritzeko.
El Ayuntamiento invertirá 300.000 euros en renovar y acondicionar los parques infantiles.

# Esparru soziokulturaleko Euskararen Hitzarmena berritzeko harremanetan

1991n sinatu zen herriko elkarteen artean Euskararen Hitzarmena. Oso emaitza positiboak eman zituen elkarteen jarduna euskalduntze aldetik baina azkeneko urteetan ez zaio jarraipenik egin.

Hori dela eta, aurten hitzarmena berritu egin nahi da eta horretarako Emun enpresaren zerbitzuak kontratatu ditu Udalak. Une honetan talde guztiekin harremanak izaten ari da Emuneko teknikaria.

Telefonoa
Teléfono



Igogailua
Ascensor



# Igerilekuetako errotuluak brailez

Udalak onartuak dituen arauak jarraituz, euskaraz egongo dira igerileku berrietako errotuluak, piktograma hutsez adierazten ez direnean. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak ezarritako irisgarritasun arauak betez, brailez ere azalduko dira errotuluok eta kasu horretan euskaraz eta gaztelaniaz agertuko dira. Orain arte, oso gutxi erabili izan da euskara brailean.

# Acuerdo para el uso racional de la energía

El Ayuntamiento ha firmado un Convenio de Colaboración con el Ente Vasco de la Energía (EVE) para promover el uso racional de la energía, y en consecuencia la mejora medioambiental, en el marco del proyecto “ENERin TOWN” co-financiado a través del programa “Energía Inteligente para Europa”.

El objetivo principal de dicho proyecto es reducir el consumo de energía en los edificios públicos municipales mediante un sistema de monitorización continua de consumos a través de Internet, así como, mediante la posterior introducción de medidas de ahorro de bajo coste y del establecimiento de unos estándares mínimos.

Son tres los edificios en los que se va a medir en consumo energético: la residencia de ancianos Mizpirualde, el polideportivo y el mismo ayuntamiento.

El Ayutamiento se ha comprometido a designar a una persona que se responsabilizará de realizar el seguimiento de la monitorización de los tres edificios e identificar anomalías y desviaciones respecto a consumos de referencia previamente establecidos.

# Koldo Eleizalde lehiaketako sari-ematea

Ekainaren 10ean egin zen Zabalotegiko aretoan Koldo Eleizalde lehiaketako sari-emate ekitaldia. 500dik gora lan aurkeztu dira guztira 21. edizio honetan, lau generotan banatuta: ipuina, bertsoa, komikia eta ipuin-kontaketa edo antzerkia.

Urtero bezala, sari-emate ekitaldian herriko ikastetxeetako ikasleen hainbat emanaldi ere izan ziren: bertso, kanta, dantza eta abar...




Goiena

# Restauración de las campas de San Martzial

El Ayuntamiento ha encargado un proyecto para la Restauración de las Campas de San Martzial para la protección de la biodiversidad y la educación ambiental. El proyecto tiene como cometido realizar una serie de mejoras en el entorno de la Ermita, adaptándolo como un parque recreativo teniendo con criterios medioambientales como la Agenda 21 Local.

Las principales líneas de trabajo a seguir son:

- Reordenación del pequeño aparcamiento con la zona de juegos infantiles.
- Reposición de mesas y fuentes e implantación de gradas rústicas en el recinto festivo.
